

9, ASTELEHENA - 18:00

ONLINE TAILERRA: "FABRIKATU ZURE ARGI BELTZEKO ESKUARGIA"

Tailer honetan, argi ultramoreko geure eskuargia sortuko dugu; horrela, fluoreszentzia eta fosforeszentzia zer diren ikasiko duzu.

Behar diren materialak: eskuargi bat, zelo-papera, errotu-lagailu iraunkor urdin ilun bat eta beste bat morea.

Ez da izena eman beharrik.

Tailerrean sartzeko, sakatu [esteka](#).

10, ASTEARTEA-19:00

ONLINE SOLASALDIA: EGUESIBARREK DAR-DAR EGITEN DU

Zergatik ditugu hainbeste lurrikara? 2020an Eguesibarren gertatu diren erlauntza sismikoez mintzatuko gara Antonio Aretxabala geologoarekin eta Arnaitz Fernández fisikariarekin. Biek ere ederki argituko dizkigute azken hilabeteotan behin eta berriz gertaturiko lurrikaren inguruan ditugun zalantza, galdera eta jakin-min guztiak.

Bidali lehenbailehen WhatsApezen zuen galderak edo kontsultak (testua, audioa edo bideoa) 660567710ra, hizlariak zuzenean erantzuteko.

Tailerrean sartzeko, sakatu [esteka](#).

11 ASTEAZKENA - 18:00

ONLINE TAILERRA: "IKASI ZERTAN DIREN EZBERDIN FLUORESZENTZIA ETA FOSFORESZENTZIA"

Fluoreszentzia eta fosforeszentzia esperimendatzeko tailer birtuala.

Tailerra *Jugando con Nuriak* gidatuko du eta izena emandakoei berariazko materialak utziko zaizkie erabil ditzaten.

Jarduera 5 eta 8 urte arteko haurrentzat da.

Izena aurrez eman behar da: www.valledeegues.com

Leku kopurua, guztira: 10

Eskariak lekuak baino gehiago badira, zozketa egingen da. Erroldatuek izanen dute lehentasuna. Mezu bat bidaliko da emandako telefonora lekua lortu dela baieztatzeko, tailerra ordaintze aldera. Behin lekua baieztatu ondoren, onartuei saioaren esteka igorri eta adieraziko zaie non eta noiz jaso saioa garatzeko behar den materiala.

Tailerraren prezioa. **10 euro**

12 OSTEGUNA- 19:00

ZIENTZIA "COVID EDITION" TABERNAN: GALDETU ZIENTIFIKO BATI.

Umore-ukitua duen ohiko doinuan (eta jakinik, Feinamanez esaten zuen bezala, ongi dagoela "ez dakit" esatea), Javier Armentiak eta Joaquín Sevillak publikoaren galdera guztiei erantzunen diete.

Proban jarriko ditugu. Bidali zuen galderak edo kontsultak garaiz (testua, audioa edo bideoa), WhatsApezen 660567710era, haiek zuzenean erantzuna emateko.

Tailerrean sartzeko, sakatu [esteka](#).

13 OSTIRALA- 18:00 - 19:30

ONLINE TAILERRA: "ETXEAN ZIENTZIA-JOLASEAN"

Esperimentaziozko saio birtuala. Cristina Solak gidaturik, esperimentuak egingen dira, berezko materialak erabilia. Materialak izena emandakoei utziko zaizkie.

Jarduera hau 7 eta 12 urte artekoentzat da.

Izena aurrez eman behar da: www.valledeegues.com

Leku kopurua, guztira: 10

Eskariak lekuak baino gehiago badira, zozketa egingen da. Erroldatuek izanen dute lehentasuna. Mezu bat bidaliko da emandako telefonora lekua lortu dela baieztatzeko, tailerra ordaintze aldera. Behin lekua baieztatu ondoren, onartuei saioaren esteka igorri eta adieraziko zaie non eta noiz jaso saioa garatzeko behar den materiala. Tailerraren prezioa. **10 euro**

14 LARUNBATA - 11:00 - 12:30

ONLINE TAILERRA: "ETXEKO KIMIKA"

Esperimentaziozko saio birtuala: Harriturik geldituko zara ikusita zenbat esperimentu egin daitezkeen etxe materialekin eta laguntza pixka batekin.

Saio honetan, hainbat esperimentu egingen dituzu, Cristina Solak gidaturik. Kimikako irakaslea da Nafarroako Unibertsitatean.

Ez dago leku mugarik, baina aurrez udal webean izena eman behar da. Behin izen-ematea baieztaturik, saioa esteka bat bidali eta huraxe garatzeko zer material behar den jakinaraziko da.

Jarduera 7 eta 12 urte artekoentzat da.

7 urtetik beherekoek saioa ulertze aldera, heldu batek lagundurik ikusi beharko dute.

14 LARUNBATA 19 etan . ADI!

“JAUZI ERRALDOIA” IKUSKIZUNA

Jauzi erraldoi bat; horra hor gizon baten saiakera, gizate-riak unibertsoa ulertzeko egindako saialdia ulertu nahian.

Ikuskizuna FAZ ondoan paratutako karpan eginen da; edukiera mugatuta*

Izen-ematea doan, udal webaren bidez, izen-ematearen atalean berariaz moldatutako galdetegian, emanaldiaren aurreko astelehenetik ostegunera.

Eskariak lekuak baino gehiago badira, zozketa eginen da. Mezu bat bidaliko da emandako telefonora lekua lortu dela baieztatzeko. Lekurik bada, iristearen hurrenkeraren arabera okupatuko dira emanaldiaren egunean bertan.

*Jarduera aldatu egin daiteke, Covid-19aren osasun bilakaerak eraginda.

PREZIOA: doan



AZAROAK 15, IGANDEA. 4 SAIO.

BIDAIA ZIENTZIARA ETA INGENIARITZARA, FSINGENIUM TEAM-en ESKUTIK.

Hona hemen aukera ederra taldearen jarduera eta balioak hurbiletik ezagutzeko, bai eta entrenamenduak, robotaren funtzionamendua eta proiektu zientifikoak ere.


Segurtasun neurri guztiak betez, 3 laguneko 3 talde osatuko dira saio bakoitzean; hiru agertokitan ibiliko dira txandaka, taldearen lana hurbiletik ezagutzeko.

Jarduera 10 eta 16 urte arteko neska-mutilentzat da.

Izena aurrez eman behar da: www.valledeegues.com
4 saio eginen dira: 10:00etan, 11:00etan, 12:00etan eta 13:00etan.

Leku kopurua, guztira: 36.

Eskariak lekuak baino gehiago badira, zozketa eginen da. Erroldatuek izanen dute lehentasuna. Mezu bat bidaliko da emandako telefonora lekua lortu dela baieztatzeko.



15 IGANDEA 15:00 - 17:00

KIMIKA SHOWA ONLINE

Osasun egoerak ez digu eragotziko zientzia gozaten jarraitzea. Osasun neurrietara egokituz, show birtual bat gozatzeko dugu, saiakuntza kimiko ikusgarriak ikusteko.

Jarduera jende guztiarentzat da.

AZAROAREN 9tik 15era

ERAKUSKETA ELKARRERAGILEA: “EMAKUME ZIENTIFIKOAK”

Ibarreko 18 erakusleihak informazio-panelak jarri dituzte ikusgai zientzian izaniko 18 emakume garrantzitsuren gainean.

Animatu eta egizu 18 erakusleiko horien ibilbidea eta, horrela, gehiago jakinen duzu emakume horiei buruz.

Ibilbidea osorik egiteak saria dakar. Izan ere, zientzialari horien bizitzaz gehiago jakiteaz gain, lehiaketa dibertigarri batean parte hartzeko aukera izanen duzu.


- **Helduendako lehiaketa** (16 urtetik gorakoak): Panel bakoitzean, QR kode bat dago eta panel horretako protagonistari buruzko galdera bat ikusiko duzu. Galderari erantzuteko, bilaketa bibliografiko bat egin beharko duzu. Galdetegi bat beteko da Eguesibarko Udalaren webaren bitartez. Asmatu dutenen artean, bazkari edo afari bat zozketatuko da bi lagunentzat Eguesibarko edozein establezimendutan.
- **Haurrendako lehiaketa** (16 urtetik beherekoak): Panel bakoitzean, QR kode bat dago eta panel horretako protagonistari buruzko galdera bat ikusiko duzu. Galderari erantzuteko, panelean ageri den informazioa irakurri beharko duzu Galdetegi bat beteko da Eguesibarko Udalaren webaren bitartez. Asmatu dutenen artean, **kit zientifiko** bat zozketatuko da.

Publiko orokorarentzat da, eta panelak aste osoan bisitatu daitezke, bakoitzak nahi duen ordutegian.

Data: Erakusketa: azaroak 9 - 15. Saria azaroaren 23ko astean banatuko da.

Lekua: Eguesibarko Merkatarien Elkarteko establezimenduetako erakusleihoetan.

[Parte hartu hemen](#)



AZAROAREN 9tik 15era

FLUORESZENTZIAREN IBILBIDEA

Zientziaren astean, 18:00etatik aurrera, fluoreszentiak bere tokia izanen du Ibarreko hainbat erakusleihotan. Animatu eta jakizu zer erakusleio diren eta zer lotura duten Emakume Zientifikoen erakusketarekin.

Publiko orokorrarentzat da, eta panelak aste osoan bisitatu daitezke, 18:00etatik aurrera.

Lekua: Eguesibarko Merkatarien Elkarteko establezimenduetako erakusleihotan.

AZAROAREN 9tik 30era

“ZIENTZIA ZURE ETXETIK” LEHIAKETA

Esperimentuz beteriko 10 bideo proposatzen dira, guztiak ere “Zientzia zure etxetik” bildumakoak, Nafarroako Unibertsitateko Zientzia Fakultateak egindakoak. Zientziaren Astean zehar argitaratuko dira Udalaren sare sozialetan. Parte-hartzaileek bideo bat grabatu beharko dute, gehienez 7 minutukoa, azaldutako esperimenduetako bat beregin dutela erakusteko. Nahi adina bideo egin daitezke. Zenbat eta esperimendu gehiago egin, hainbat eta aukera gehiago dago irabazteko.

Bideoak csollar@unav.es kontura bidaliko dira, azaroaren 30era arte. Abenduaren lehen astean, epaimahaiak bideo irabazlea aukeratuko du.

Udalak bideo parte-hartzaileak eta bideo irabazlea argitaratzeko eskubidea izanen du.

Irabazleei kit zientifiko bat emanen zaie saritako, etxean esperimenduetan egiten jarraitzeko.

Norentzat: publiko orokorrarentzat.



AZAROAK 22 ETA 29, ETA ABENDUAK 13, 20 ETA 27. IGANDEAK

ENTRENATU FSINGENIUM TEAMekin


Robotika, zientzia, berrikuntza, ingeniarietza eta proiektu zientifikoak gustukoak badituzu, aukera paregabea duzu orain **FIRST LEGO League-ko** talde txapeldunaren entrenamenduetan parte hartzeko. Izan ere, entrenamendu ofizialeko atak Ibarreko gazteentzat irekiko dira. Horrela, balio eta lan-prozedura jakin batzuk ezagutuko dituzu, oso baliagarriak neska-mutil talde batek egunegun are gauza hobeto egiteko. Akiulagarriak baitira, neska-mutilen ikusmina, jakin-mina eta gogo bizia sustatzeko, bai eta gauzak gero eta hobeto egiteko gaitasuna bultzatzeko ere, harik eta munduko txapeldunak izan arte.

Jarduera 12 eta 16 urte artekoentzat da.

Saioak igandeetan egingen dira, 10:00etatik 14:00etara, eta pertsona bakoitzak gehienez 3 saiotarako eman dezake izena (**4 leku saioko**).

Aurrez izena eman behar da: www.valledeegues.com

Eskariak lekuak baino gehiago badira, zozketa egingen da. Erroldatuek izanen dute lehentasuna, bai eta saioa bakar batera joan ez direnek ere. Mezu bat bidaliko da emandako telefonora lekua lortu dela baieztatzeko.



AYUNTAMIENTO
VALLE DE EGÜÉS
EGUESIBARKO
UDALA

